

Guraso izatean jango duzu... punk

Punk, bi, hiru, lau: Zain taldea zorioneko dago. Hurrengo egunetan guraso izango dira. XXI. mendeko aita-amak. Azken ekografia diskografikoak dio seme potzoloa datorrela. Jakinpean daude zibilborhestea erortzean, laserraren eraginez, umeari erdian zulotxoak geratuko zaiola zibilborra bailliztan. Hori izango da lotura lehen diskoarekin Gaztea Irratiak antolatutako maketa saria irabazi eta gero. Hori guztia lortuko dute hainbat hilabete apatikoren ostean. Orduan, adorea izan zuten, eta 77an izango balira bezala, esaera zaharrak diona beteko dute: guraso izatean jango duzu... punk.

Berrizko laukote bizkaitarrak hamabi abesti zorrotz, eta aldi berean, punk-pop goxoxo-goxoak erdituko ditu. "XXI. mendeko piratak" diskoa bizi-tramankulua da eta bikain konpondutakoa. Zorionez, argazki kamararekin ekografia ateratzea lortu nuen eta baita "Gurea" abesti zoragarriaren taupadak entzun ere Lorentzo Records estudioan: uzta honen lelorik erakargarriena, bitamina hutsa. Zain taldearen soinuak euren "osaba" Berri Txarrak taldearekin badu zerikusirik Unairen ahotsari dagokionez eta Rise Against edo oso miresten duten Millencolin taldeen oinordetza ere agerian dago.

Diskoa, Baga-Bigak editatutakoa, izenburua ematen dion abestiarekin hasten da zeinak Bad Religion taldearengana eramaten gaituen eta antzekoa gertatuko da "Jainkoen zerkitzariek" diskoa bukatzeko abestiaren soinu parametroekin. Baina abesti bakoitziari bila diezaizkiokegu hain ezagunak ez diren eraginak, gainera baliotsuak dira hartzen duten nabarmenagatik. Sugarcult edo Millencolin taldeko gitarra-jotzailearen Franky Lee talde paraleloaren antzekotasuna dute.

Lehen singlea "Umea izan nahi dut" da, diskoak erdietsi duen kanturik "baskoena", nahiz eta beste abesti guztiek duten leloa single izateko. Nabarmentzen dira "Berliner Team", punk britaniarren freskotasuna eta zuzenerako himno adeitsua, edo "Jaia" ezaguna, "Aitzakiak" edo "Oihukatzen" itsaskorra.

Ilearen urdinkera jabetu zaigunoi, Zain taldearen taupada iraultzaileek eramaten gaituzte 90eko Gasteizko Elefante Blanco aretoko ostegun hardcore melodiko gauetara. Kaliforniako soinurik ederrenak eskaintzen zizkigun euskaldunei garain batean punk azeleratuaren altare hark. Berrizkoek garai hartan joko balute, haietako talde-sastakidun edonorekin partekatua ahal izango zukeen kartela eta era horretara azken Bilbao BBK Live jaialdiko oroitzen txarra kendu, kantuaren izena lekuko, "2009/07/10".

Laster guraso izango diren hauei hankak lurrean izan ditzatela eskatuko diet: badakit zorrartzen duena, baina arrakasta ez da existitzen Euskal Herrian. Hori bai, Lehiotikan, Lor edo Kauta taldeen jarraitzaileek gustuko izango duten Zain taldearen diskoa nire lehen oparia izango beste seme batetzat. Nirearentzat.

Iban Gorriti (2010eko abenduaren 1ean)

Unai: ahotsa eta gitarra.

Asier: gitarra eta koroak.

Alberto: baxua eta koroak.

Froufe: bateria eta koroak.

ZAIN

XXI. mendeko piratak



Zain taldean giza arazoez bustita dauden hitzak dituzue, aberatsen piratakeria eta, bestetik, gizarte perfektuaren bila.

Ba izan leike bai, badauz be jai inguruan sortzen diren egoerak edota talde moduan bizi doguzen esperientzien kontaktak. Gehixen bat gure moduen jende askok buruen daukozen beldurrei buruz eiten dogu berba. Da baita arazoei buruz berba egitea, gauza politai buruz berba egitea baino errezagua egiten zaigulako.

Zain taldea Gaztea irratia maketa Lehiaketako irabazle izan da 2010an (epaimahaiaren sariarekin). Zergatik uste duzue?

Nik uste dot 10 kantuko CDa bialdu eban talde bakarrenetakoa izango ginela. 5 urtetan zehar egin ziren kantuak zirelako, eta CDa nahikoa orekatua zegoelako. Gure moduko talde asko daude, musika entzuteko erraza dalako, agian apustu segurua zalako.

Zain taldeak rock indartsu zein melodikoan ditu finkaturik bere musikaren ezaugarriak. Punka ere agertzen da. Beste eraginik?

Ba ez. Guk horrelako motako galderak egiten dozkuenean beti punk-pop-rock egiten dogule esatea adostu gendun oin dala ia urte batzuk. Gehixen bat Bad Religion, Offspring, Millencolin eta horrelako taldeen punk-rocka entzutea gustaten jakun hasieran. Gero atzerriko punk-pop talde asko entzuten hasi ginen. Taldie sortu gendunien, "punk americano" ko talde bat izengo ginela komentatzen gendun. Apurke-apurke bai rockeruaguak bihurtu garela, baina beti gustetaku kontzertuan punk momentuak eukitzea.

ritxi aizpuru (2010eko abenduaren 1ean)

